

**ESZENARATZEA ETA DRAMATURGIA
EGUNGO BERTSO AGERKARIETAN**

LA ESCENOGRAFÍA Y LA DRAMATURGIA EN LOS ESCENARIOS ACTUALES
SCENOGRAFY AND DRAMATURGY IN MODERN STAGES
LA MISE EN SCÈNE ET LA DRAMATURGIE DANS LES SCÈNES ACTUELLES

ENEKO OLASAGASTI
Aktorea
Teatro eta zine zuzendaria
Kazetaritzan Lizentziatua
EUSKAL HERRIA

ESZENARATZEA ETA DRAMATURGIA EGUNGO BERTSO AGERKARIETAN
(ENEKO OLASAGASTI)

Bertso saioen egungo eszenaratzea ez da betidanikoa, une jakin batean sortua baizik. Bertsolaritzak bizirik izango zuen iraultza eszeniko handiena mikrofonoaren eta bozgorailuen agertzeak ekarriko zuen, berrizaletasuna ez baita nagusi bertsolaritzan. Bertsolaria gizaki multidiziplinarra da, plazaragizona. Saio arrunt bateko atzeko eta aurreko bertsolariei adi egoten zaie entzulea. Hala ere, jardunean ari den bertsolaria nabarmendu beharke litzateke, eszena edo argien bidez. Gai-jartzaileak saioaren dramaturgia (harilkatze lana) bideratzen du. Saioak helburu zehatza duenean arreta errazago erakartzen du. Bertsolariak bi nortasun dauzka, berea eta pertsonaiarena. Bi horiek eta unekoa uzartzean arrakasta komunikatiboa lortzen du (metabertsolaritza).

La actual escenografía de una actuación de bertsolaris no es la misma que se presentaba en sus inicios. La mayor revolución escénica que jamás ha conocido el bertsolarismo es la aparición del micrófono, puesto que la tradición oral vasca tiene grandes dificultades para digerir innovaciones y cambios. El bertsolari es un ser multidisciplinar, una persona de gentes. El público fija su atención tanto en el bertsolari que actúa como en los que aguardan sentados, si bien mediante focos y demás habría que poner en relieve al que está improvisando. El conductor ha de dirigir la actuación; cuando el objetivo está marcado, resulta más fácil atraer la atención del público. El bertsolari posee dos personalidades, la suya y la de su personaje. Cuando ambas se unen a la del momento, el bertsolari consigue el éxito comunicativo (el metabertsolarismo).

The present stage scene of a bertsolari performance is not the same one that appeared in its beginnings. The greater scenic revolution that bertsolaritza has ever known is the appearance of the microphone, since the Basque oral tradition has great difficulties to digest innovations and changes. The bertsolari is a multidisciplinary being. The public pays attention to the performer as well as to the other bertsolari that wait seated, although it would be necessary to focus the attention on the person who is improvising by using lights or places. The conductor has to guide the act; when the objective is fixed, it is easier to attract the attention. The bertsolari has two personalities, hers and the one of its personage. When both are linked to the one of the improvisation moment, the bertsolari gets a successful communication (metabertsolaritza).

L'actuelle mise en scène d'une activité de bertsolaris n'est pas la même que celle qui se présentait au début. La plus grande révolution scénique que le bertsolarisme a jamais connu est l'apparition du microphone, puisque la tradition orale basque a de grandes difficultés pour digérer des innovations et des modifications. Le bertsolari est un être multidisciplinaire, une personne de gens. Le public fixe son attention tant sur le bertsolari qui chante que dans ceux qui attendent, bien que les lumières et d'autres devraient servir à mettre en relief le premier. Le conducteur doit diriger l'activité; quand l'objectif est marqué, il s'avère plus facile d'attirer l'attention du public. Le bertsolari possède deux personnalités, la sienne et celle de son personnage. Quand toutes les deux sont unies à celle du moment, le bertsolari obtient le succès communicatif (le metabertsolarisme).

ESKENARATZEA ETA DRAMATURGIA EGUNGO BERTSO AGERKARIETAN

Lehenengoz, onartu beharrekoa da bertso saioek egun duten azaltzeko modua ez dela betidanikoa baizik eta momenturen batean eta arrazoi batzuei erantzunez jaioko zela. Beraz, hori gertatu aurretik ez zen gaur ezagutzen dugun modukoa eta posible da etorkizunean ere diferente izatea.

Gu partaide garen atal honetan Performantze adiera erabiltzen da bertso agerkarien alderdi ez textualak izendatzeko. Kontzeptuen ezinezko bereizketa ikusten dut nik hor. Alderdi textualak, eta bertsolaritzan nabarmenago, Alderdi ez textualetan erabat eragiten du. Analisi sistema gisa balio dezake baina sorreratik biak eskutik helduta joan dira eta batak bestearengan eragin zuzena izan du, eta alderantziz.

Bertsolariaren irudiaren eta izatearen garrantzia ikaragarria izan da bertsolaritzaren eta bere agertzeko moduen garapenean, gizabanakoaren inguruan sortutako prozesua izan da. Inprobisazioaren amildegitik hitzez, musikaz, hoskidetasunak, inguruaren ezagutzak, itxurazko gauzatzeak alegia, entzulearengan sortzen duen lilurak bultzatuta egiten da ikuskizuna. Prozesu honek sortu duen diktaduraren majiak, edo majiaren diktadurak, luze iraundu bertsogintzan, bertsolaria bihurtuz guztiaren erdigunea. Honek bere ordain eskeniko nabariak izan ditu. Kasu honetan bederen, euskaldunon berrizaletasunerako joera eskasa izan da, baina ez hutsa. Ziur aski bertsolaritzak bizi izan duen iraultza eskeniko handiena mikroaren eta bozgoragailuen agertzeak ekarriko zuen, mikro barik kantatu ezin zuen askori bideak zabalduz. Baina badira gehiago, agian ez horren eraginkorrak, eta gehienak azken hogeitertan geratutakoak, emakumeen plazaratzea kasu. Baina ez da nire asmoak aldaketa horiek zenbatzea baizik eta burutapen orokorrako bat egitea gaur egun saio bat egituratzen duten osagai zehatzetatik abiatuta.

Bertsolaritza euskal munduak bizi duen barne eta kanpo iraultzaren beste adierazgarri bat baino ez da. Kultura eta espresabide bezala etorkizuna bermatzeko egin diren ahaleginek biziki markatu dute bere oraina eta zehaztuko bere geroa. Transmisioan jarrita dago arreta. Bertso eskolak, Bertsozale elkartearen jarduna, eta hainbat eta hainbat aspaldiko gertakizun, eredu zaharraren sendotzea ekarri dute batetik, eta nahita eta nahigabe bide berrietatik abiatzea. Aldaketa handiena, lojikoki bestalde, bertsolarian eman berria. Gaur egun pertsonaia publiko eta multidisziplinarra da, kasu gehientsuenetan: Iritzi-emaile, irakasle, ikerle, kazetari, gidoigile, idazle, arte ederretako ikasle... Eta antzesle? Askok antzesletik beraiek uste baino gehiago dute. Erabil dezagun dena biltzen duen hitz zaharra: plazagizona. Gaur egungo plaza menderatzea ordea ez da inorentzat lan erreza.

Egungo saio arrunt baten eszenaratzea...

Saio arrunta definitzerakoan gaur egun Euskal Herriko plaza gehienetan egiten dena hartuko dugu bere ezaugarri oinarritzkoetan. Publikoari begira lau, sei edo zortzi haulti. Aurrean bi mikrofono, gehienetan. Ikusi ahal izateko moduko argia, hau da, lau. Denak batera eta lerroan, nahiz ez oso formala izan, sartzen dira. Irten berdin egingo dute. Zutik agurra kantatu arte eta gero eseri egiten dira banan bana. Gaijartzailea alde batera edo bertsolarien segidan jartzen da, eta kantzeko bertsolaria mikrorra hurbiltzen da. Bertsolariak kantantzen duen bitartean bere kideei bizkarra emanaz egiten du, beraz guk dena ikusten dugu, bai bertsolaria kantari, bai atzekoeek egin ohi dituzten gauza guztiak. Eta gure begirada galduta ibiltzen da askotan, bertsoaldiaren mailaren arabera baita ere, eta arreta gehiago jartzen diegu atzekoei kantari ari denari baino. Beraz gure arreta ez dago garbi finkatua. Eta eszenan bi gauza ari dira gertatzen. Eta nire galdera da: garrantzirik ba al du atzean gertatzen denak? Nori inporta zaio zenbat zigarro erre, ur edan, zenbat aldiz aldatu duen postura bakoitzak, nor den berritsuena. Aldeak daude gainera, ez da berdina gaztetxo izatea eta atzean beteranoak, txapelduna barne, berrikeretan aritzea edo mikro aurrean dagoena eskarmentuduna izatea, nahiz atzean eskola zaharrekoak izan. Alderdi guzti hauek formalak dira eta halatsu hartu behar dira haintzat. Ezin dugu beste alde batera begiratu. Guztiak baitu eragina saio bat ongi burutzeko momentuan. Eta nire uste apalean, ia mendean aldatu ez den moldeak, eguneratzea beharko luke.

...eta aukera batzuk.

Hasteko, ados jarri beharko dugu benetako garrantzia zerk duen esateko momentuan. Eta uste dut denok bat etorriko garela esatean gaia ipintzen denean hasten dela, isilune batek jarraitzen diola, eta bertso bat edo bi edo hirukin ixten dela. Eta txaloen erantzuna, hotzago edo beroago Beste guztia, printzipioz, sobran dago. Bestalde, ez dago zertan beste bertsolariak eszenatik atera behar. Beraz kontua kokapena da, kantatzen ez duten bertsolarien kokapena. Eta oholtza baten gainean ezagutzen dugun hori ez da bakarra. Kantatzen duen bertsolariak nabarmendu egin behar du eta guk lagundu egin behar diogu atzean gure arreta lapurtuko duen ezer ez ipintzen. Beste kokapen batzuk saia daitezke beraz. Kontutan hartzen badugu erdigune fisikoak ez duela derrigor erdigune eszenikoarekin bat etorri behar zenbait aukera azaltzen zaizkigu.

Egun ohotzetako teknikak eskeintzen dizkigutenak behar diren neurrian aprobeztatu egin behar dira. Eta hoienean maila bateko bertso saioentzat ezinbestekoa beharko luke argiak. Argiak konpondu dezake oraintxe aipatu dudan arretaren arazoa eta baita kokapenarenean lagundu. Lagundu dezakete gaiaren arabera, modu oso sinpletan. Beraz bi gauza egin dezakete argiek girotu edota nabarmendu. Beti aretoek baldintza betez gero, jakina. Baina saioek ere antolatu daitezke aretoaren arabera.

Saioen dramaturgiatz

Dramaturgia bertso saioa modu batera edo bestera arilkatzen duena bezala ulertu behar dugu. Saioek gaur ezagutzen digun bezala egitura nahiko finkatu eta pisutsua dute. Eta egituraren pisuak oso baldintzatzen du irraigaita. Saioak erdi antolatuak daude eta osagai jakinak dituzte: agurra, bakarkakoak, binakakoak, ofizioak, ariketak kartzela, neurri diferenteak. Modu desberdinetan antolatzea da kontua.

Hori da, behintzat, gaur egungo saio arrunt bati begiratuta atera daitekeen ondorioa. Baina nago ez zela beti horrela izango. Noizpait hasiko ziren bertsolariak pertsonaia baten larruan sartuz kantatzen eta gatazka batetik abiatuta gainera. Noizpait ere, azalduko zen gidari, gajartzaille, baten beharra. Publikoki datatuak dauden lehen agerkariei kasu eginez lehiak izan zirela ohartzen gara. Dramaturgia mota antzinako baten adierazgarri. Nire ustez, garbi ondorioztatu dezakegu antzinako agerkerietatik egungoetara garapena, txikia bada ere, egon dela bertsoaren dramaturgia esan diezaiokegun horretan, hau da, bere barne mekanismoetan. Beraz, borondatezkoa ez bada ere dramaturgia egon badago.

Txapelketa litzateke bertsolalitzak egun ezagutzen duen egitura dramaturgiko sendoena. Helburu finko batekin egiten delako. Eta beste askoren artean hori da txapelketak ugaldtu izanaren arrazoietakoa bat, ikusleari erakargarriagoak egiten zaizkiolako saio arrunt baten aldean, suspensea dutelako, bukaera ez delako inorentzat ezaguna.

Saio arruntei, berriz, helburua falta zaiela esango nuke edo entrenitze eta gozarazte hutsa direla. Ikusentzukizuna. Ez dute beraz txapelketak sortzen duen interesa sortzen. Dramaturgiaren beharra eta bertsoagintzari lotutako bere garapena helburua finkatzetik etorriko litzateke. Saioari itxura eta forma ematen diona, gidaria, gajartzaillea da, hainbat baldintza kontutan harturik: Bertsolarien izaerak eta bertsoerak, egoera soziala, herria, txapelketa, umore ikutuak, gai sentiberak, mezu sakonak. Beraz, helburua ipintzetik gertuen dagoena bera da, dramaturgiaren nondik norakoa bere eskuetan geratzen da batipat. Bertsolariak, noski, eragin dezake prozesuan baina beti gajartzailetik pasata. Gajartzailleak inprobisatzailea behar luke ere. Honek ez badu malgutasunik bertsolariaren ekarpena aurretik duen gidoicari integrazteko saioak ez du gorako jauzi nabarmenik egingo eta hasieratik markatutakoari lotuko zaio dizdira eta bikaintasuna galduz. Saioaren arduraren bertsolariak bere bizkar hartzen duenean (Dela esperientziagatik, dela txapelagatik, dela publikoarekin lortutako konplizitateaz, dela gaztetasunaren ausardiaz...) neurri batean dramaturgo bihurtzen da.

ESZENARATZEA ETA DRAMATURGIA EGUNGO BERTSO AGERKARIETAN
(ENEKO OLASAGASTI)

Ikuskizuna egiteaz gain beste helbururen bat ematen bazaio saio bati dramaturgia klasikoaren kanonak rebisatzea ekarriko luke, ea zerbaitek balio duen bertso saioei aplikatzeko. Ikerketa horrek, agian, bertso dramaturgia berri baterako bideak irekiko lituzke.

Nortasunaren katramila.

... eta xarma. Bertsolariak bi leku desberdinetatik kantatzen du, bere nortasunetik, nortasun publikotik esan beharko genuke agian, eta pertsoinaia baten larrutik. Hasieran bere ahotik kantatzen du. Momentu batean edo gehiagotan beste baten larruan sartu behar du. Hirugarren espazioa saioan zehar sortzen doa aurreko biak nahasten doazenean eta momentu batean ez dago garbi noiz den nor, hirugarren bat sortu delako, izaera eszenikokoa bakarrik. Tarteka beste bertsolariak esandakoak eta bizitakoak euren pertsonaictan ere bereak egiten ditu. Hiru maila horiek sortuz eta garatuz eta nahastuz leku berri bat eraikitzen da. Bertso saio bakoitzak beste guztietatik bereizten duena alegia. Bakarra egiten duena. Hori da dudarik gabe lekurik interesgarriena. Horrek sortzen baitu konplizitate gehien ikuslearekin. Metabertsolaritza bezala izenda genezakeen baina izendatzea da gutxienekoa. Leku horren bila egitea da inportantea, hor baitago berezitasuna. Eta bertsolariak, gaijartzailearekin batera espazio horren kontrol gehiago badu hobe joango dira saioak.

Eneko Olasagasti.

BIDE BERRIEZ

Nire esperientziatik. "Bertso eguna 2002". Asmotik gauzatzera. Egitura. Bertsolariak egitura aurretik ezagutzeaz.

Mestizajea. Musika, dantza, irudiak...

Bertso tramak.

Egokitu, aldatu eta aurreratu beharraz. Galdu? Irabazi?